

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA**Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko urriaren 28ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena****— Foru Dekretua:****NEKAZARITZA SAILA**

37/2025 Foru Dekretua, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 31/2025 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez onetsi baitziren ardotarako mahatsetarako nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planetan sartutako nekazaritza aseguruak kontratatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2025-2026 kanpainarako deialdia.

— Erabakiak:**DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**

628/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak zenbait entitatetan duen ordezkartza berritzeari.

629/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak zenbait entitatetan duen ordezkartza berritzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

630/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Comercializadora de electricidad y gas del Mediterráneo SL enpresari adjudikatzea gas natural kanalizatua hornitzeko esparru akordioa; gauatzeko epea: 2 urte.

631/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Teknei Information Technology SL enpresari adjudikatzea Jboss Enterprise Application Platform EAP lizentzien harpidetza berritzea, 341.946,00 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta hiru urteko gauzatze epearekin.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

632/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin betiko onestea Alegría-Dulantzikoko udalerrirako egindako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa.

633/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Vitoria-Gasteizko 1 poligonoko 895 lurzatiaren doako erabilera Martiodako Administrazio Batzarrari lagatzeko epea luzatzea.

634/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea M_T02/2025/0000000023 kreditu transferentziaren espedienteari, 19.130,12 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Obra hidraulikoen instalazioak" izeneko partida, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

635/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea M_T00/2025/0000000128 kreditu transferentziaren espedienteari, 15.000,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Bestelako hornidurak" izeneko partida, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

636/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Aurrekontuak aldatzeko hainbat espediente onestea, "Genero Indarkeriaren aurkako Programa" eta "Albiste agentziak" partidak funtsez hornitzeko, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak eta Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

637/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Aurrekontuak aldatzeko hainbat espediente onestea, "Egibide Fundazioa: Goi Mailako LH" eta "Kultura eta sorkuntza industriak. 2024 AKK" partidak funtsez hornitzeko 2026 urtekoan, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

638/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Aurrekontuak aldatzeko hainbat espediente onestea, "Obra eta Zerbitzuen 2024-25eko Foru Plana AKK" partida funtsez hornitzeko 2026 urtekoan, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak hala eskatuta.

639/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Kexaako Monumentu Multzoaren errentamendu kontratua suntsiarazteari.

640/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko "NGEU, Helmugen Jasangarritasun Turistikoko Plana. Arabako parke naturalak" partida, 2026. urtean, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

641/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arraia-Maeztuko Udalari dirulaguntza zuzena ematea, Zumalde parkean altzariak berritu eta ingurumena leheneratzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

642/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onesta Arabako Lurralde Historikoan paper-kartoiaren frakzioa biltzeko, kudeatzeko eta edukiontzietan sartzeko zerbitzuari buruzko prezioen lehen berrikuspena, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 30eko 302/2023 Erabakiaren bidez adjudikatua.

643/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea "Navaridasko urmaela" hezegunea kontserbatzeko bi lursail erostea.

644/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin betiko onestea Arabako tamaina handiko hondakinak kudeatzeko, konpontzeko eta berrerabiltzeko zentroa gauzatzeko proiektua, 6.077.390,60 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta gauzatzeko zortzi hilabeteko epearekin.

645/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Koresen bi lurzati eskuratzeari, Izkiko Parke Naturalerako eta KBE/HBBerako aparkaleku bat eraikitzeko, Arabako parke naturalen helmugen jasangarritasun turistikoko Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzaturako NextGenerationEU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

646/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea lan-kidetza hitzarmen bat sinatzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta "ASPANAFOA" Arabako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartearen artean, minbizia duten adingabeen familiei laguntzeko programa bat gauzatzeko.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

647/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea “Foru sareko zenbait errepidetan hartxintxarra botaz gainazaleko tratamenduak egiteko proiektua. 2023. urtea” proiektuak A-3134 errepidean, Urarte eta Markinez bitartean, eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari eta nahitaez okupatu beharrari.

648/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea “Foru sareko zenbait errepidetan hartxintxarra botaz gainazaleko tratamenduak egiteko proiektua. 2023. urtea” proiektuak A-4017 errepidean, Ozaeta eta Elgea bitartean, eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari eta nahitaez okupatu beharrari.

649/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea VC2 bizikleta bidea (Vitoria-Gasteiz – Arabako Parke Teknologikoa) eraikitzeke kontratuaren aldaketa, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 838/2024 Erabakiaren bidez adjudikatu zena.

650/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 838/2024 Erabakian hautemandako errore bat zuzentzeari.

NEKAZARITZA SAILA

651/2025 Erabakia, urriaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 695/2024 Erabakiaren bidez deitutako basogintzako laguntza lerroen bigarren ebazpenari.